

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2018. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak eskatuta egin dugu txosten hau, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumena baliatuz (otsailaren 18ko 4/2005 Legea).

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako jarraibideetan agindutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzea eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea. Jarraibideak, zehazki, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko dira.

Txostenean landuko den legearen aurreproiektuak **Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urterako aurrekontu orokorrak** onartzea du **xede**.

Beraz, **xedapen arauemaile orokorra da**, zer-nolako genero-eragina duen ikusteko ebaluatu beharrekoa, lehenengo jarraibidearen 2.1. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritz. Horretarako, lehen jarraibidearen 3. zenbakian aurreikusitakoaren arabera, generoaren arabera eraginari buruzko txostena egin du araua sustatu duen organoak.

Egiaztatu dugu bete egin direla 4/2005 Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. Horrenbestez, generoaren arabera eraginari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, honako ohar eta proposamen hauek egin ditugu:

Aipatu legearen aurreproiektuak generoaren arabera duen eraginari buruzko txosteneko edukia baloratu baino lehen, **aurretiazko hainbat gogoeta** egingo ditugu **prozesuari berari eta prozesua egiteko metodologiari buruz, garrantzitsuak iruditzen baitzaizkigu**:

- Lehenik eta behin, berriz ere positiboki baloratu behar dugu **Ogasun eta Ekonomia Sailak** genero-eraginari buruzko txostena egiteko orduan duen **lidergotza**. Ildo horretan, aurreko ekitaldietan antolatutako lan-prozedurari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzako sail guztiei laguntza eskatu die, honako txosten hau betetzeko orduan. Txosten hau egitean, gainera, Sailak ahalegin berezia egin behar izan du, eta baliabide ekonomikoak prestatu ditu Sailari berari laguntza teknikoa eskaintzeko eta gainerako sailetako beste agente batzuei lineako aholkularitzarako babes eta laguntza teknikoa emateko, Emakunderekin lankidetzan beren aurrekontu-programak azter ditzaten.
- Halaber, lan-prozedura hau, aurreko urteetan ere nabarmendu denez, berez da pizgarria, **erakundeen artean lan-sinergia lankidea** sortzen baitu. Sail guztiek txostena egitean azterketa-lan sakona egin behar dute, eta urteetan zeregin horretan hartutako esperientziaren inguruan antolatu da, hain zuzen ere, lan-prozesua. Hala, berdintasunerako administrazio-unitateen protagonismoa eta lidergotza lagun, horixe da ikasitakoaren oinarria. Hori dela eta, oso positiboki baloratu da parte hartu duten sail eta erakunde autonomo guztiek egin duten ahalegina, eskatutako datuak igortzeko orduan. Azterketa-lana, gainera, apurka-apurka sakonagoa eta konplexuagoa bihurtu da, eta, ondorioz, lankidetzara bera ere estutu egin da. Ez hori bakarrik. Azterketa Eusko Jaurlaritzaren **genero-mainstreamingaren gainera erreferentziazko prozesu** bihurtzen ari da, eta gero eta agente eta pertsona gehiago inplikatzeko ditu. Lehenengo urteetan, sail bakoitzeko unitateetako berdintasuneko teknikariak ziren batez ere lana egiten zutenak. Apurka-apurka, hala ere, aurrekontu-prozedurarekin lotutako gero eta langile gehiago parte hartzen ari dira. Aurten, lehenengoz, prestakuntza eman da, Emakunderen eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren lankidetzaren bidez eta IVAPen laguntza osoa edukita. Sakontze-prozesu horren ondorioz, bestalde, sailen barruan ere prozesu koordinatuak antolatzen ari dira, azterketa egin, hobekuntzak identifikatu eta hobekuntza horiek maila politikoan baliozkotzeko. Nolanahi ere, berdintasun-unitateen lidergotza nuklearra da, eta oraindik ere hobetu beharreko alderdiak daude sailen

barruko lan-estrategietan. Hala eta guztiz, sailarteko lankidetzak hori guztia eduki ezean ezin izango litzateke txosten hau egiten den bezala egin.

- Halaber, azken urteetan aurrekontuen gainera legearen aurreproiektuen gainera genero-eraginari buruz egin diren txostenak aztertzeari eta txostenok egiteko prozesuetan eskuratutako esperientziari esker, hobetu beharreko hainbat alderdi hauteman dira. Jaurlaritzaren ekintzarako hain esanguratsua den araudi honen ondorioz nahitaez egin behar izan da ***ad hoc egokitzapen metodologikoa***, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeari, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideetan ezarritakoaz harago. Horrenbestez, 2016an ordura arte aplikatutako ikuspegi metodologikoa eta azterketa-mota birformulatu ziren, aurrekontu-prozesuan mainstreamigara ezartzeko orduan aurrerapauso bat egite aldera. Horren harira, eraginari buruzko txostenak azpimarratzen duen bezala, ikuspegi berri horrek honako hau du xede: batetik, *aurrekontu-esleipenek emakumeen eta gizonen aukera sozioekonomikoen gainera dituzten eraginak aztertzea, EAEko administrazio publikoaren jardueraren arlo guztietan, planifikazio, betearazpen eta ebaluazioko fase orotan*; bestetik, azterketa horrek aukera ematea emakumeek eta gizonek gure gizartean duten egoeraren edo/eta posizioaren ondorioz dauden egoera diskriminatzaileak mantendu edo areagotzen dituzten eraginekin lotutako partidak berregituratu ahal izateko.
- Horrenbestez, ***azterketarako tresna zehatz bat*** diseinatu da: ***“P18-Gen aurrekontu-programak genero-ikuspegiaren arabera aztertzeako formularioa”***. Formulario horrek, zehazki, aurrekontu-programak aztertzeako metodoa ezartzen du, eta formulario hori da erabakiak hartu eta aurrekontu-konpromisoak ezartzeko agiri nagusi eta estrategikoa. Azterketa-tresna honen birtualtasuna are handiagoa da, kontuan hartzen badugu Gobernu Kontseiluan onartu eta legitimatu zela, aurrekontu orokorrak egiteko arau teknikoaren eta jarraibide ekonomikoaren barruan. Ondorioz, dagoeneko sartuta dago aurrekontuak egiteko administrazio-prozeduran, eta aurrekontuak egiteko teknikaren parte da. Maila politikoan egon eta administrazio-prozeduran sartzea, zalantzarik gabe, beharrezko baldintzak dira edozein mainstreaming-estrategiatan, gobernu ororentzat.

- Esan bezala, metodologia honi esker oinarriak finkatzen ari dira, **lan-prozesu konplexuak** eratu daitezen, prozesuotan, araua sustatzen duen organoaren (hots, Ogasun eta Ekonomia Sailaren) lidergotzarekin, eta Emakunderen babesarekin eta lidergotzarekin, sailarteko lana bultzatze baina baita sail barruko lana ere. Are gehiago, berdintasunerako administrazio-unitateak beren sailen eta erakunde autonomoen barruan barne-mailako koordinazio-prozesuak sortzen ari dira, eta gero eta pertsona gehiago daude horietan inplikaturik. Gai horietako batzuk generoaren araberako eraginari buruzko txostenean jasota daude, egiten ari diren aurrerapausoekin batera.
- Halaber, azterketa sakondu den honetan agerian geratu da nolabaiteko **prestakuntza eman behar zaiela formulario honen bidez azterketa egin behar duten pertsonei**. Hala, 2017an zehar, txostenean bertan adierazitakoari jarraikiz, prestakuntza zehatza eman da IVAPen berdintasunaren gaineko prestakuntza-eskaintzaren esparruan, bai eta ondoren lineako aholkularitza ere. Ogasun eta Ekonomia Sailak ordaindu du hori, ikasleei (tartean, berdintasuneko teknikariei) azterketa-tresna hau betetzeko prestakuntza ematen jarraitzeko. Egiten den azterketa gero eta zehatzagoa da, eta, prestakuntza faktore gakoa izan da bide horretan. Ondorioz, langileei prestakuntza ematen jarraitzea benetan garrantzitsua da, eta, horrenbestez, oso positiboki baloratu da sailak lan-prozesu honetan prestakuntza-baliabideak ematen jarraitzeko duen konpromisoa. Inplikaturikotako agente askok oraindik ez du prestakuntza jaso, eta bistakoa da metodologian laguntza, aholkularitza eta hobekuntza etengabeak behar direla alderdi guztiak bete ahal izateko. Aurrekontu-programak jasotzen dituzten erakundeei eta xede-populazioari buruzko datuak eskuratzeko orduan egon dira zailtasun handienak.
- Edonola ere, ezin dugu ahaztu **prozesu esperimentalak dela, etengabe ikasi eta hobetu beharrekoa**. Generoaren araberako eraginari buruzko lehenengo txostenak egin zirenetik gaur arte, apurka-apurka sakonduz joan da lan-prozedura. Hasieran, izan ere, berdintasun-politika zehatzak aztertu baino ez zen egiten, eta, orain, bestetik, generoarekin lotu daitezkeen aurrekontu-programa guztiek izan dezaketen eragina aztertzen da, berez berdintasun-politikak ez izan arren. Berdintasun-politikek Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoan duten pisua kalkulatzeko esanguratsua da, noski. Hala

ere, aurrekontu-prozesua askoz konplexuagoa da, eta politika zehatz horiez gaindi dauden hainbat eta hainbat programa eta eskumen-eremu barne hartzen ditu. Ondorioz, argazki mugatu honekin ez da neurtzen politika publiko guztiek benetan generoaren eremuan duten eragina. Jarduera publikoaren eta horrek emakumeen eta gizonen bizitzetan duen eraginaren azterketa mugatua egiten da, esku-hartze publikoaren jarduera-eremu desberdinetan. Horregatik guztiagatik, oso positiboki baloratu da azterketa hutsaz harago egin den aurrerapauso kualitatiboa, administrazio orokorreko gainerako politika publikoak generoaren aurrean neutroak ez direla azpimarratzeko, eta, beraz, generoan eragina dutela eta aztertu egin behar dela nabarmentzeko. Bidezkoa denean, gainera, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko edo/eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikusi beharko dira.

- Kontuan hartuta azterketa honen garrantzia eta arau honek berdintasun-politikan izan dezakeen eragina, Emakundek aurtan martxan jarri du ***lantalde tekniko bat, Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzeko metodologia hobetu dadin***. Abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzekoak, 11. artikuluan dionari jarraikiz, Sailarteko Batzordeak lantalde teknikoak sor ditzake gai batzuk berariaz edo arlo jakin baten ikuspuntutik aztertzeko. Taldeok iraunkorrak zein aldi baterakoak izan daitezke. Halaber, artikulua horren arabera, lantalde tekniko bat eratzea erabakitzen denean, erabakian bertan, talde horren kideak, xedeak eta jardun-modua azaldu behar dira. Lantalde horiek agintzen zaizkien gaiak aztertu behar dituzte, eta haiei buruzko txostenak eta proposamenak aurkeztu. Hori guztia dela eta, Sailarteko Batzordearen 2017ko martxoaren 6ko bileran aho batez erabaki zuten, bertan zeuden pertsonen artean, hiru lantalde tekniko jartzea martxan, eta, horien barruan, honako hau, zehazki. Proposamen tekniko hori Emakumeen eta Gizonen Sailarteko Batzordean onartzeko aurkeztu zen, 2017ko ekainaren 27an. Koordinazio-egitura horiek eratu izanak, esan bezala, agerian uzten du proiektua estrategikoa dela, lanean apurka-apurka sakontzen ari dela, eta, azkenik, baliabide ekonomikoak igo egin direla. Egitura-mailan lehen aldaketak antzematen ari dira, eta proiektuarekin jarraitzeko asmo sendoa dago. Talde honen funtsezko helburuetako bat da, hain zuzen ere, lan-estrategiak aztertu eta diseinatzea, prozesua finkatu eta hobetzeko asmoz. Ekimen honetan Ogasun eta

Ekonomia Sailak dauka lidergotza, besteak beste, eta sailetako berdintasun-teknikari batzuek parte hartu dute: Lehendakaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Agentzia; Gobernu Publikoa eta Autogobernua; Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak; Kultura eta Hizkuntza Politika; eta, azkenik, Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa. Estrategia eta hobekuntza metodologikoei buruzko proposamenak Sailarteko Batzordearen osoko bilkurara eramango dira, gainerako berdintasun-teknikariekin adostu daitezen, eta, ondoren, izaera teknikoa duten proposamenak izango dira, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordera eraman ahal izango dira.

- Kontuan hartuta *hirugarren urtea dela (jarraian) formularioaren egitura zehatz hori erabiltzen dela*, azpimarratzekoa da 2016az geroztik planteatu den azterketa-mota berriak nabarmen hobetzen dituela aurreko azterketak. Gaur egun, mailaz maila identifikatu daiteke, alde batetik, Jaurlaritzako aurrekontu-programa guztiak generoarekin lotuta daudela, eta, bestalde, bidezkoak diren horien genero-garrantzia zenbatetsi daiteke, goitik behera ezartzeko emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko orduan ekarpen gehien egiten dituzten programak zeintzuk diren. Halaber, programaren barruan generoaren gainean duten garrantziaren arabera identifikatu daitezke helburuak, informazioa berezita eta berdintasunaren alde eragin gehien izateko gaitasuna duen hori azpimarratuta. Programaren hartzaille diren emakumeen eta gizonen egoera eta abiapuntua aztertzeko jaso behar den informazio-mota ere benetan alderdi garrantzitsua da. Programaren hartzailleak xede-populazioa dira, orokorrean, bai eta erakunde hartzailleak ere, zehazki. Nolanahi ere, azterketa hobetu eta erraztu beharra dagoela hauteman da prozesuan, oraindik ere konplexua baita.

Ondorioa:

Hori guztia dela eta, *oso positiboki baloratzen da egindako apustu berria*, Jaurlaritzaren aurrekontu-jardueran generoaren ikuspegia sartzeko lan-prozesua abiarazte aldera, konpromisoak eta lidergotza politikoak nahiz itundutako lan-estrategiak finkatuta (Ogasun eta

Ekonomia Saila, Emakunde eta gainerako sailak). Horretarako, beharrian eta baliabide berriak identifikatu dira, eta lan-tresna berriak sartu dira administrazio-prozeduran. Era berean, baliabide ekonomikoak prestatu dira parte hartzen duten langileei aholkularitza tekniko eskaini eta prestakuntza emateko.

Ikuspegi berri honek, *emakumeen eta gizonen berdintasun-politikek Jaurlaritzaren aurrekontu osoan duten pisua kalkulatzeaz gain, harago jotzen du, eta lan-prozesu bat aktibatzen da, aurrekontu-politikak orokorrean generoarekiko neutroak ez direla nabarmentzeko*. Gainera, generoari buruzko eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko txosten horren lan-prozesua ez da berez xede bat; aitzitik, politika publikoen aurrekontuak ezartzeko orduan hobetzeko beharrian agerian uzten duen praktika bat da. Beharbada kontu hori erronka bat da oraindik ere, eraldatzeko gaitasuna oraindik mugatua baita. Aurrekontu-programa batzuetan hobetzeko lehen esperientziak hasi badira ere, oraindik kontzientzia pizten ari da, analisi kritikoa egin dadin politika publikoen neutraltasun eza eta genero-berdintasunak nabarmentzeko asmoz. Egitura-izaera duten aldaketak garatu ahal izateko oinarriak finkatzen ari dira. Aurten, aurrerapen kualitatibo bat egon da: berez berdintasun-unitateetakoak ez diren langileek prestakuntzan parte hartu dute. Alderdi hori funtsezkoa da datozen ekitaldietarako ere. Ildo horretatik, beharrezkoa izango da aurrekontu-programetako bakoitzeko ardura nagusia duten langileak, hots, zuzendaritza politikoak prestakuntzan eta aholkularitzan are gehiago inplikatzeko. Erabakiak, izan ere, maila horretan hartzen dira.

Azken 3 urteetan datuak eskuratzeko tresna eta metodologia berrien bidez egindako azterketa hau *mailaz maila* egiten da, eta etorkizunean *koordinazio politiko eta tekniko handiagoa sustatuko duten estrategiak* beharko ditu, aurrekontu-prozesuan parte hartzen duten *langileei prestakuntza* eskaintzen jarraitu ahal izateko, *prozesua are gehiago estandarizatzeko*, eta, azkenik, beste *babes-baliabide* batzuk eskaintzeko. Erreferentziazko eredu bat izan litezke dagoeneko Emakundek eskaintzen dituen baliabideak, generoaren arabera eraginari buruzko aurretiazko gainerako ebaluazioetan baliatzen direnak eta bere webgunean ikus daitezkeenak. Formularioa betetzeko erreferentziazko material orientagarriak egin ahalko lirarteke, adibide eredugarriak ematen dituztenak. Horren adibide dira Emakundek argitaratutako sektore-gidaliburuak:

<http://www.emakunde.euskadi.eus/politika-publikoak/-/informazioa/eraginari-buruzko-ebaluazioak/>

Halaber, aurrekontu-programa guztien azterketak gordetzen dituen unitate bat ere presta liteke, bertan kontsultak egin eta ikaskuntza partekatua sortzeko, Jaurilaritzako langileen esku dagoen eta generoaren arabera eraginei buruzko txostenen kudeatzailea deritzon aplikazioan egiten den bezala. Orokorrean, inplikaturako agenteei informazioa eskuratzeko orduan hobekuntzak nola sartu pentsatu behar da, prozedura erraztu, erakundeen ikaskuntza indartu eta aurrekontuen legeak generoaren arabera duen eraginari buruzko ebaluazioaren kalitatea eta eragina areagotzeko.

Hori guztia dela eta, eragina aztertzeko metodologia bera **berriaz aztertu eta etengabe hobetu daiteke**. Izan ere, prozesu konplexua da, agente asko inplikatzen dituen, aztertzeko denbora behar duena, eta informazio ugari tartean duena. Halaber, oso nuklearra da erabakiak hartzeko orduan. Baina jomuga estandarizatzea da, eta, gidaritza-fasearen ondoren, **metodologia finkatzea**, genero-ikuspegian oinarrituta aurrekontuen bilakaerari buruzko azterketa alderatuak egin ahal izateko.

Horrez gain, azterketa bera ere **aurrekontuen teknika hobetzeko** aukera bihurtzen ari da, baita beste administrazio-prozesu nagusi nahiz lotu batzuk hobetzeko ere. Hori horrela, aurrekontuek generoaren arabera duten eragina identifikatzeko tratamendu estatistikoa hobetzeko balio dezake, jarduera publikoaren lehentasunen tresna nagusi gisa, emakumeek eta gizonek gizartean dituzten posizio ezberdinak eta baliabide publikoak eskuratzeko moduak agerian utzita.

Aurrekontu-politikari buruzko ikuspegi berri honek berez lehen eragin positiboa sortzen du emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean. Izan ere, kontua aurrekontuari generoa jartzeari da, eta ez soilik zenbateak aurrekontuaren zein zati gastatzen den emakumeen eta gizonen berdintasun-politika zehatzetan -orain arte egin izan den bezala-. Azkenik, aurrekontu-programa guztien, eta, batez ere, herritarren bizi-kalitatearen gainean eragin gehien duten horien gaineko generoaren arabera eragina aztertzean politika publiko guztien azterketa egin behar da, eta ez soilik berdintasun-politiken aurrekontu-pisu erlatiboarena.

Generoaren arabera eraginari buruzko txostenaren edukiri erreparatuz gero, azpimarratzekoa da txosteneko edukien azterketa oso azalekoa egin dela, legearen

aurreproiektua sustatu duen organoak berandu bidali batzuen txostena. Horrenbestez, nahitaezko txosten honen azterketan gehiago jorratu dira aurretik landutako lan-prozesuaren alderdiak eta metodologia, txostenaren edukia bera baino. Nolanahi ere, hobetzeko proposamen batzuk egin dira:

- Lehenik eta behin, **araudi-esparruari** buruzko hasierako kapituluaren berariaz azpimarratu nahiko genuke txostena egitean bete egin dela 4/2005 Legearen 19. artikulua, baina baita 20. artikulua ere. Azterketan zuzenketa-neurriak ere jaso behar dira. Halaber, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpenari buruzko jarraibideak aipatu behar direla proposatzen dugu. Jarraibide horiek Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onartu ziren 2012ko abuztuaren 21ean. Nahiz eta txosten honek, adierazi dugun bezala, egokitzen-lana egin duen generoaren arabera eragina aztertzeko formulazioaren bidez, txostenak jarraibide horietan ezarritakoa betetzen du.
- Halaber, **sarreran** komenigarria da azaltzea metodologia, diskriminazio-egoerak mantentzen edo areagotzen dituzten eraginekin lotutako partidak aztertu eta berregituratzeaz gain, neurriak proposatzeko aukera eman behar duela, eragin positiboak dituzten beste partida batzuk finkatu, edo, hala badagokio, areagotzeko. Era berean, atal honetan berariaz nabarmentzen da azterketa egiteko sail eta erakunde autonomo bakoitzak egokitzen jotzen dituen estrategiak ezarri behar dituela. Nahiz eta, mainstreamingeko sailarteko beste lan-prozesu batzuetan gertatzen den bezala, metodologia era ezberdinean aplikatzen diren sail bakoitzean, garrantzitsua iruditzen zaigu oinarritzko esparru orokorra estandarizatua izatea, ez soilik azterketa-tresnetan, baizik eta baita koordinazio-estrategian ere. Sortu den lantaldeak egiten dituen proposamenak xede horretarako erabili ahal izango dira.
- **2018ko aurrekontuari** buruzko atalean, aipatzekoa da formularioa P17-Gen betetzean egindako irakaskuntzaren emaitza dela, baina baita P16-Gen delakoa betetzean ikasitakoaren emaitza ere, eta, beraz, halaxe jaso dadila proposatzen dugu.
- **Diagnostiko sozioekonomikoa** jorratzen duen atalak 2017rako aurrekontu-azterketarekin egindako lanera jotzen du. Ondorioz, txosten honen ekarpenak

Erakunde honek txosten horri egin zion nahitaezko txostenean azaldu ziren berdinak dira. Hona hemen:

- Ahal den neurrian beste era bateko baliabide sozial neuralgikoak (esaterako, hezkuntzakoak edo prestakuntzakoak) eskuratzeari buruzko datuak jasotzea, ezagutzaren atalean teknologia berriei eta genero-etendura digitalari buruzko datuak jasotzen baitira. Era berean, beste baliabide batzuk (adibidez, kulturakoak eta kirolekoak) eskuratzeari buruz ez da datu askorik jaso.
 - Orokorrean, atal hau aberastu beharra dagoela hauteman da. Horretarako, datu batzuk bereizita eman beharko dira, are gehiago formulario berriarekin, aurrekontu-programa bakoitzaren hartzaile izango diren kolektibo sozialak aztertzea aurreikusten baitu.
 - Azkenik, etorkizuneko txostenetan genero-etendura nagusiei buruzko ondorio laburbildu edo sintetikoen atal bat idazteko proposatzen dugu.
- Aurrekontu publikoen funtsezko parte gisa **diru-sarrerak aztertzen** dituen atalean, horiek generoarekin lotuta daudela egiaztatu da, bai eta etorkizunean horietan generoaren araberako eraginari buruzko azterketa sartzeko asmoa ere, batez ere superabitari edo defizitari lotuta, baina soilik gastu publikoak generoaren arabera duen eraginari buruzko lana finkatu denean. Etorkizunean diru-sarrerak aztertzeko konpromiso hori positiboki baloratu da.
 - **Gastuak aztertzen** dituen atalean, aurrekontu-programak ere aztertzen dira.
 - Lehenik eta behin, aipatzekoa da ez dela ekarpenik egin langileen gastuei buruzko **I. kapituluan**, txostena berandu jaso denez ezinezkoa izan baita atal horren gainerako azterketa egokia egitea. Etorkizunean, hobetzeko proposamenak identifikatuko dira, halakorik badago, generoaren araberako eraginari buruzko hurrengo txostenetan kontuan har daitezen.
 - **Generoarekiko lotura aztertzean**, txostenaren arabera aztertutako aurrekontu-programen aurrekontuaren % 97 generoarekin lotuta dago. Ehuneko garrantzitsu horiek testuan nabarmenduta agertu daitezela proposatzen dugu, azterketako datu sintetiko garrantzitsuak baitira. Edonola ere, izugarri

esanguratsua den datu honek agerian uzten du aurrekontuen generoa ez dela neutroa programetako ehuneko oso altu batean, eta, beraz, programa horiek generoaren ikuspegitik landu ahal direla.

- **Garrantzia aztertze**¹ atala izan da, zalantzarik gabe, txostenak berak dioen bezala, lanik neketsuena eta zehatzena, datu ugari jasotzen baititu. Programak hiru garrantzi-mailatan kalifikatuta, nolabait lehentasunak ezartzen dira zuzenketa-neurriak sartu eta erabakiak hartzeko orduan, programa horien berdintasunerako garrantziaren eta eragiteko duten gaitasunaren arabera. Txostenak, laburbilduz, honako hau dakar: aztertutako aurrekontuaren % 43 garrantzi altukotzat jo da, aztertutako aurrekontuaren % 50 garrantzi ertainekotzat, eta, azkenik, % 7 soilik garrantzi baxukotzat. Datu horiek interpretatu ahal izateko, egokia izango litzateke azalpen-azterketa bat egitea. Hori horrela, datuen arabera, aztertutako aurrekontuaren % 43k berdintasunerako bidean eragin altua izateko gaitasuna dauka, % 50ek berdintasunerako bidean eragin ertaina izateko gaitasuna dauka, eta, azkenik, gainerako % 7ak tresna-izaera handiagoa dauka, berdintasunerako bidean eragin baxua duen arren.
- Sail guztietan partekatzen den **egitura eta babeserako programa** aztertzean, sailetako bakoitzerako azterketa xehea egin da.
 - Programa honek duen **garrantziarekin** lotuta, programa gehienak garrantzi altu edo ertainekoak direla nabarmendu behar da (8 eta 4 hurrenez hurren). Eraginari buruzko txostenaren arabera, gainera, helburu guztiak garrantzi altu edo ertainekotzat jotzen dira.
 - **Berdintasuneko ekintza zehatzak** direla eta, berdintasun-politiketarako aurrerapentzat jotzen ditugun bi alderdi azpimarratu nahi ditugu:
 - Berdintasunerako administrazio-unitate berriak (datorren ekitaldian hiru izango dira) sortzeko prozesua antolatzea. Plaza horiek sortzeko, komenigarria da hornidura hori eratzea, aginduak betetze aldera. Nolanahi ere, oraindik ere beharrezkoa da 213/2007 Dekretuaren 3. artikulua sortu nahi dituen gainerako unitateak eratzea (guztira 4).

¹ Garrantziaren sailkapena: altua-ertaina-baxua

- Aurrekontu propioa gero eta sail gehiagora hedatzea, berdintasunerako administrazio-unitateetarako, berdintasunerako ekintza zehatzak kudeatu eta betearazi ahal izateko. Hartara, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak 2016ko uztailaren 21ean hartu zuen erabakietako bat bete nahi da. Erabaki horren bidez, izan ere, hainbat konpromiso hartzen dira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete, garatu eta aplikatzeari buruzko 2015. urteko ebaluazioaren emaitzak abiapuntutzat hartuta. Konpromiso horren arabera, *“aipatu administrazioetako berdintasun-politiketarako aurrekontuaren portzentajea apurka-apurka igo behar da”*. Ekitaldi bakoitzean unitateen aurrekontua eta baliabideen hornidura egokia ote diren ebaluatu beharko litzateke, partida horiek finkatu, edo hala badagokio, areagotu behar ote diren zehazteko.
- Sailetak **gainerako aurrekontu-programen** azterketari erreparatuta, gure ustez nabarmenago azpimarratu beharko lirateke sailetak bakoitzeko berdintasun-politika zehatzetarako aurrekontuen portzentajeari buruzko datuak. Era berean, atalaren amaieran Jaurilaritzak berdintasun-politika zehatzetarako duen aurrekontu osoaren portzentajeari buruzko datu global batutzaila nabarmendu dadila proposatzen dugu. Egokitze jotzen bada, laburpen-taula bat jaso liteke, aztertutako aurrekontu orokorraren gainean politika zehatzetarako identifikatu ahal izan den zatia sailka adierazita. Generoaren araberrako eraginari buruzko txostenari jarraikiz, portzentaje hori, gaur egun, aztertutako datuekin, **aurrekontu osoaren gaineko % 0,11** da. Aipatzekoa da, gainera, portzentaje hori aurreko ekitaldietako txostenetan identifikatu zena baino baxuagoa dela. Horrenbestez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika zehatzen aurrekontu-esleipena hobetzen jarraitu behar dela uste dugu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean aurreikusitako neurriak betearazteko eta funtzioak betetzeko beharrezko diren baliabide ekonomikoak esleitzeko agindua bete asmoz.

Legearen aurreproiektuaren eta eraginari buruzko txostenaren idazketarekin lotuta, orokorrean **hizkuntzaren erabilera ez sexista** sustatu da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen 18.4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorioa:

Generoaren araberako eraginari buruzko txosteneko edukia aztertuta, bistakoa da etorkizuneko ekitaldietarako **era egokiagoan estandarizatu beharko dela generoaren araberako eraginari buruzko txosten honen egitura**. Estandarizazio horri esker, errazagoa izango da ekitaldien azterketa alderatzaileak egitea, aurrekontuek generoaren arabera izan duten eraginaren bilakaerari buruzko jarraipen egokia eta luzetarako egitea, bai eta erakunde autonomo eta sail guztien artean alderaketak egitea ere.

Azterketa ikusita ondorioztatu daitekeenez, **aurrekontuen memoriak, aurrekontuen jarraipena egiteko orduan funtsezko tresnak izaki, hobetu egin beharko lukete sailetako berdintasun-planen jardueri eta helburuei buruzko jarduerak ikusarazteko modua**.

Azkenik, aurreko ekitaldietan bezala, **nahitaezko txostenaren eskaria Erakunde honi lehenago aurkeztu behar zaiola** errepikatu nahi dugu, erakundeak denbora nahikoa izan dezan izapidea era egokian betetzeko. Izan ere, egoera hori errepikatu da azken urteetan, eta epe hain laburrean aztertu behar denez, txostena ez da nahiko genukeena bezain zehatza. Are gehiago, ezin dugu hobetzeko neurririk planteatu ere, ondoren txostenean eta batez ere arauan sartu ahal izateko. Horrenbestez, **genero-eragina aurretiaz ebaluatzeari, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideetako** bigarrenaren bigarren zenbakian adierazitakoa bete dadila proposatzen dugu. Horren arabera, izan ere, Emakundek txostena igortzeko epea hamar egun baliodunekoa izan beharko litzateke.

Beraz, Emakundek proposatu duen **hobekuntza-neurri nagusia lan-prozesua aurreratzeari, bai aurrekontu-programak aztertzeak**, bai generoaren araberako eraginari buruzko txostena egitekoa, txosten hori benetan ex ante ebaluazioa izan dadin, aurrekontuen esleipenean eta araudian -hala badagokio- are aldaketa gehiago sortzeko gaitasuna duena.

Gainera, beharrezkoa da didaktika bat sortzea, azterketan parte hartzen duten agenteek berariaz uler dezaten helburua berez ez dela formularioa betetzea, baizik eta memorien edukian hobekuntzak identifikatzea, baita, batez ere, baliabideen banaketan ere, politikek modu parekideagoan eragin dezaten emakumeen eta gizonen bizitzetan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 23a.